

Zaporea eta kalitatea esku-eskura

Eroski NATURen fruta hezurdunak oso ongi umotuta egoten dira, eta aparteko gozo ukitu edukitzen dute



Abrikotak, melokotoiak, paraguaioak, nektarinak eta gereziak... Horiek gabe, zer litzateke uda? Fruta hezurdunak dira horiek guztiak, eta gainerako fruta guztiak bezala, elikagai ezinbestekoak dira gure osasunarentzat eta ongizatearentzat, hortik hartzen ditugun mantenugaiak ere halaxe dira eta: ura, bitaminak, mineralak, zuntza, eta herdoilaren aurkako substantziak. Zehazki, zuntza izaten dute ugari fruta hezurdunek, gainerakoek baino gehiago. Horri esker, lagungarriak gertatzen dira hesteen funtzioa erregulatzeko eta idorreria arintzeko, baita zenbait eritasuni aurre hartu eta horiek tratatzeko ere (hiperkolesterolemia, diabetesa, gizentasuna...). Frutak, izan ere, osasuna eta bizitasuna dakartza. Horregatik da garrantzitsua kalitatearen alde egiten duten markak lehenestea. EROSKIk ere baditu bere markako elikagai fresko eta hautatuak, Eroski NATUR sailekoak, hain zuzen ere. Hor barrenean, frutak eta barazkiak ez ezik, haragia eta arraina ere

aurkituko dituzte kontsumitzaileek. Marka horretako elikagaien ezaugarri nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: kalitate gorena –zapora berezia ematen diena– eta osasun-berme egiaztatua. Uda honetarako, gainera, EROSKIk ahalegin berezia egin du Eroski NATUR saileko fruta hezurdunak are gozoagoak izan daitezten; horretarako, ezinbestekoa izan da hornitzaileekin elkarla, fruta garai egokian bil dezaten, behar bezain umotua dagoenean.

Zaporea bereizgarri

Eroski NATUR fruta hezurdunen kalitatea (abrikotak, melokotoiak, paraguaioak, nektarinak eta gereziak) horiek landatu aurretik zaintzen da, baita sail bereko gainerako fruta eta barazkien kalitatea ere. EROSKI hornitzaileekin harremanetan jartzen da, eta zera eskatzen die: ekoizpen integratuko nekazaritza-teknikak erabil ditzatela, fruta edo barazkia sortzen den autonomia erkidegoan, eskualdean edo herrialdean indarrean dauden horiek.



Eroski NATUR produktuak freskoak dira eta haien kalitateagatik hautatuak



Ohiko nekazaritzaren eta biologikoaren erdibidean dago ekoizpen integratuko. Ingurumena zaintzen duten landaketa moduak erabiliz, kalitate oneko produktuak lortzea, horixe da laborantza era horren ezaugarri nagusia. Izurriteei aurre egiteko, adibidez, ekoizpen integratuaren kodeek lehenetsi egiten dituzte metodo biologiko eta kulturalak, eta ez kimikoak. Hain zuzen, hornitzaileekin egiten diren hitzarmenek argi esaten dute egoerak behartuta soilik erabiliko direla nekazaritza-produktu kimikoak (intsektizidak, herbizidak eta ongarririk). "Behar adina, eta ahal bezain gutxi" erabiliko direla esaten da, eta aipu horrek laburbiltzen du produktu kimikoen inguruko jarrera. Ekoizpen integratuko sistemak, gainera, uraren kudeaketa hobetzearen alde egiten du, eta tratamendu zentzuzkoagoak erabiltzearen alde.

Eroski NATUR saileko fruten eta barazkien hornitzaileak Global Gap erakunde >

Garaian-garaiko frutak dira komenigarrienak



pribatuaren kontrolpean daude, eta hark ematen duen ziurtagiria daukate. Nekazaritza-jardun egokien kodea ezartzen du erakunde horrek, landa-eremuko ekoizpen-prozesu guztia arautzeko. Horrelaxe lortu nahi da laborantza-ustiategiek ingurumenean duten eragin kaltegarria arintzea eta metodo kimikoen erabilera murriztea.

Eroski NATUR frutak eta barazkiak hautatzerakoan eta biltegiatzerakoan, berriz, kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarrita eduki behar dute hornitzaileek, bai Europako Batasunekoek, bai handik kanpokoek ere. Gisa horretako sistemarik hedatuena BRC British Retail Consortium eta IFS International Food Standard izenekoak dira. Horrez gain, kontrolak egin behar dituzte produktua landatu aurretik eta ondoren, Eroski NATUR markaren parametroetara egokitu dadin. Fruta hezurdunei dagokienez, hornitzaileek garairik egokienean bil ditzatela nahi izan du EROSKik, eta halaxe egiteko eskatu die; era horretan, behar bezala umotuta egongo dira, eta besteek ez bezalako gozo ukitua eta zaporea edukiko dute.

Plataforma logistikoetan

Eroski NATUR saileko fruta eta barazkiak EROSKikren banaketa-plataformetara iristen direnean, aztertu egiten dira, produktuek zer-nolako ezaugarri organoleptikoak (zaporea, itxura...) dituzten ikusteko eta osasun-alderdietan nola dabilzan jakiteko.

Kontrol organoleptikoen bidez, aleak behar bezala umotuta daudela bermatzen da, horrek baldintzatzen baitu frutaren zaporea (horixe da, hain zuzen, Eroski NATUR sailaren balio erantsia). Hori egiteko, frutaren gogortasuna aztertzen da eta zenbat azukre duten neurtzen da. Beste alderdi batzuei ere erreparatu zaie: zenbat zuku duten, zenbateko azidotatzen-tasa, neurria, kanpoko eta barreneko itxura, eta abar. Orobat, hondakin maila ere kontuan hartzen da. EROSKik, izan ere, Hondakinak Kontrolatzeko Plan bati jarraitzen dio, eta arlo horretako legediak esaten duenarekin alderatuta, eskakizun eta betebeharrak zorrotzagoak ezartzen ditu protokolo horrek: Espainiako Estatuko legediak Hondakin Gehienezko Muga batzuk finkatzen ditu labore bakoitzarentzat, eta muga horren % 50aren azpitik egon behar dute Eroski NATUR produktuek.



>

HISTORIA PIXKA BAT

1998an sortu zen Eroski NATUR. Garai hartan, haragi freskoarentzat soilik zen, eta urtebete igarota, frutak eta barazkiak ere sartu ziren marka horren barruan. 2007an, berriz, arrainekin osatu zen Eroski NATUR familia, eta egun, lau elikagai talde horiek hatzen ditu: haragiak, frutak, barazkiak eta arrainak. Nahiz eta urteak pasatu eta aldaketa batzuk egin, bere horretan iraun dute sail horretako produktuen ezaugarriak. Halako ezaugarriak dituzten elikagaiak eskuratzeko, bi alderdi zaindu behar izaten dira bereziki: batetik, produktuaren jatorriari, arrazari eta produktu motari erreparatu behar zaio, eta onenak hautatu; bestetik, kontrol eta jarraipen zorrotz-zorrotzak egin behar zaizkio, EROSKik ohi duen bezala, elikagaia sortzen den lekutik hasi eta saltokietan jartzen dituzten arte. 2010. urtean, adibidez, 2.160 analisi egin zituen EROSKikren Kalitate Sailak bere laborategietan, eta beste 568 azterketa egin zituen hornitzaileen ustiategietan bertan. Horrelaxe egiaztatzen da Eroski NATUR markako elikagaiak ongi betetzen dituztela dagozkien osasun- eta higiene-irizpideak.



Eroski NATUR fruta

hezurdunak: zer jan eta noiz?

Urte sasoi guztietan aurki ditzakegu frutarik gehienak, baina askoz hobea da garaian garaiko fruta jatea. Udan gaude, eta hauxe da, hain zuzen, fruta hezurdunak eskuratzeko unerik onena. Baina zein garai da onena fruta bakoitzarentzat?:

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
Melokotoia					●	●	●	●	●	●		
Nektarina							●	●	●			
Paraguaioa					●	●	●	●	●			
Abrikota					●	●						
Arana					●	●	●	●	●	●		
Gerezia					●	●						

Osasunarentzako onurak: kolore-kontua da

Elikabide apartak dira fruta hezurdunak. Ura, zuntza, bitaminak eta mineralak ematen dituzte, baina osasunarentzat oso garrantzitsuak diren beste osagai batzuk ere badituzte, nahiz eta ez izan elikagarriak. Herdoilaren aurkakoak dira horietako batzuk. Gai horiek murriztu egiten dute zenbait gaixotasun pairatzeko arriskua: endekape-nezkoak, bihotz-hodietakoak eta are minbizia ere.

HERDOILAREN AURKAKOAK	ORGANISMOARENTZAKO ONURA	FRUTA HEZURDUNAK
Antozianinak Kolore gorria edo morea ematen dute	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintza kardioprotektorea eta gernu-antiseptikoa. 	Aranak (beltzak, bereziki)
Karotenoak Kolore horia, laranja eta gorrixka ematen dute	<ul style="list-style-type: none"> • A probitamina ematen dute, zeina A bitamina bihurtzen baita. • On egiten dio hezurren hazkundeari eta defentsa-eta nerbio-sistemari. 	Abrikotak, gereziak eta melokotoiak
Flabonoideak Landare-koloratzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintza kardioprotektorea eta minbiziaren aurkakoak. • Hanpaduren aurkako ezaugarriak eta diuretikoak. 	Gereziak



Jatorri Izena duten gereziak eta melokotoiak

Betidanik, tokiko produktuen aldeko apustua egin du EROSKIK, eta horiek laguntzea eta sustatzea izan da haren konpromisoetako bat. Asmo horrek izan du bere isla Eroski NATUR sailean ere. Zehazki, Eroski NATUR fruta hezurdunen artean, Jatorri Izena (JI) duten bi daude: Jerte Ibarreko gerezia eta Calandako melokotoia.

Babes-figura bat da jatorri izena, frutei eta berdueri ezartzen zaiena, besteak beste. Zigilu horrek adierazten du eremu geografiko horietatik datozela fruta horiek, eta beren jatorriari lotutako baldintza naturalek ematen dizkietela kalitate bikain hori eta ezaugarri berezi horiek. //

Eroski NATUR fruta hezurdunak

- Melokotoia
- Nektarina
- Paraguaioa
- Abrikota
- Arana
- Gerezia: besteren artean, Jerte Ibarra Jatorri Izenekoa

Eroski NATUR fruta gehiago

- Meloia: apo-azal motakoa
- Sandia: azal berde ilunekoa, hazirik gabea
- Sagarrak: 5 mota; Goldena, Granny Smith-a, Errege Sagarra (Zuria eta Grisa) eta Royal Gala
- Zitrikoak: laranja, mandarinak eta limoiak
- Kiwia
- Marrubia
- Konferentzia udarea
- Blanquilla udarea
- Intxaurreak

Eroski NATUR barazkiak

- Patatak: 4 mota; frijitzeko, egosteko eta erregosteko, gorria eta goarniziorako
- Azenarioa
- Orburuak
- Brokolia
- Tomatea
- Frijitzeko piperrak
- Endibia
- Letxuga-bihotzak

